

TEKS.

MEMORIA TORREKUA 2025

TORREKUA.EUS

BABESLEAK:





GURIBURUZ **KAIXO!**

Aurkezpena

2024ko udaberrian TORREKUAn hasitako etapa berria fruituak ematen hasi da jada. Errenteriako Udalak TEKS Elkartearekin duen lankidetzaren eta laguntzari esker, TORREKUAK bizitza berri bat hartu du, Ekonomia Sozial Eraldatzailearekin eta Teknologia Libreekin lotutako hainbat ekintza aurrera eramanez.

Urte honetan TORREKUA ezagutzera eman da, eta proiektuaren inguruan komunitate bat sortzen ari da. TORREKUA teknologiekin dugun ikuspegia eta harremana partekatzeko, sortzeko, trebatzeko, esperimentatzeko eta eraldatzeko gune gisa definitu dugu, betiere ikuspegi sozial eta komunitario batetik.

Pasatutako urtean definitu genuen bezala, TORREKUA herritarren eskura dagoen proiektua da, herritarrengandik eta herritarrentzat sortua. Behar berriei eta erronka teknologikoei modu komunitarioan erantzuteko espazioa da, eta herritarrek badakite TORREKUAn topatuko dutela behar duten babesa eta baliabideak.

TORREKUAK gauzak beste modu batean egiteko aukera eskaintzen die herritarrei. Periodikoki egiten diren ekintzek komunitate txikiak sortzen ari dira, eta aurten komunitate horiek egonkortu eta zabaltzea da gure helburu nagusietako bat.

TORREKUA erreferentzia-gune bihurtzen ari da honako esparruetan:

- Elkarlaneko teknologia libreen garapenean
- Gizarte-ekonomiako proiektuak sustatzean
- Digitalizazioari eta gizartearen erronkei buruzko ikerketan, ikuspegi sozial eta eraldatzailerik

Pasatutako urtean definitutako helburuen errepasoa eginda, ikus daiteke norabide onean goazela, hainbat helburu jada bete baititugu. Horien artean daude teknologia libre eta ekonomia sozial eraldatzailea garatzeko formazio- eta zabalkunde-jardueren antolaketa.

Horrez gain, aurten Torrekuko azpiegitura informatikoa garatu dugu, eta horri esker, laster herritarrei zerbitzu berriak eskaini ahal izango dizkie TORREKUAK, oligopolioen mendekotasunak baztertuz eta teknologiak sortzen dituen arrakala sozialei arreta berezia jarriz.

MISIOA

HELBURUAK

“

- Teknologia librearen eta ekonomia sozial eraldatzailearen inguruko ezagutza zabaltzeko edukiak sortu eta argitaratzea.
- Teknologia librearen garapenerako zerbitzu aurreratu kolektiboak eskaintzea.
- Teknologiaren erabilera osasuntsu eta soziala sustatzea, bereziki oligopolioen mendekotasunak baztertuz eta arrakala sozialei erreparatuz.
- Tresna libreak eta ezagutza komuna metatzeko gune irekiak sortzea.
- Datuen azpiegitura etiko, libre eta kooperatiboak eskaintzea.
- Teknologiaren garapen eta erabilerarako aholkularitza eraldatzaile eta etikoa eskaintzea.

“

- Teknologia librean oinarritutako proiektu sozioekonomikoak sortu eta sustatzea, ekonomia sozial eraldatzailea eta kooperatibismoa oinarri hartuta.
- Teknologia librearen garapeneko komunitateak sortzea eta erabiltzen diren tresnen komunitateetan parte hartzea.
- Software librean eta hardware librean oinarritutako proiektu kolektiboak garatzea.
- Teknologia librearen eta ekonomia sozial eraldatzailearen sustapenerako guneak sortu eta kudeatzea.
- Ekonomia sozial eraldatzaileko interkooperazio- eta lurralde-sareetan parte hartzea.

TEKS TORREKUA

TEKS irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa sortu zen 2021ean, eta Teknologia Libreei eta Ekonomia Sozial Eraldatzaileari lotutako interkooperazio-sarea izatea du helburu. TEKSen ustez, teknologia libreak pertsona eta kolektiboen behar pertsonal eta profesionaletara egokitzeko, aldatzeko, hobetzeko eta haiekin modu librean erlazionatzeko beharrezko baliabideak eta tresnak sortzea funtsezkoa da.

Bide horretan, TEKS elkartearen Errenterian kokatua dago, eta bere jardueraren eremua Oarsoaldea eskualdean du sustraitua, eragina Euskal Herri osora zabalduz. Horregatik, Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko elkarteko bazkidea da, eta interkooperazioa lantzen du modu intersektorialean, sare osoan Teknologia Libreak sustatzeko helburuarekin.

TO
RRE
KUA

KOMUNITATEA

PASATUTAKO URTEAN DEFINITUTAKO EGITURARI JARRAITUZ, TORREKUAKO KOMUNITATEA BARNE-KOMUNITATEKO ETA KANPO-KOMUNITATEKO ERAGILEEK OSATZEN DUTE.

ABAILA

Telekomunikazioetako irabazi-asmorik gabeko kooperatiba da, Internet, telefonia, hosting eta zibersegurtasun zerbitzuak eskaintzen dituen. Zumaian du egoitza, eta gaur egun Torreku (Errenteria) ere jarduten du. 2018tik aurrera, telekomunikazio-sare independente baten bidez konektagarritasun-zerbitzuak eskaintzen ditu, operadore handien alternatiba gisa, hurbilagoa eta jasagarriagoa delako. OLATUKOOP Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzaileko kooperatibak biltzen dituen elkarteko kidea da.

BIKONET

Teknologia etengabe aurrera doan mundu honetan, non konexioak gero eta azkarragoak izan arren, askotan deskonektatuta sentitzen garen, operadore berri bat sortzen da, pertsonak erdigunean jartzen duena: **Bikonet**.

Bikoneten ez gara soilik telekomunikazio kooperatiba bat, pertsonen operadorea gara

Pertsonei tratatu duina emateko konpromiso irmoak besteetaz ezberdintzen gaitu, uste bait dugu edozein dei, mezu, edo konexioren atzean, pertsona bat dagoela, behar eta eskakizun zehatzekin.

TALAIOS

Etorkizuneko teknologietara egokitutako aholkularitza- eta garapen-zerbitzuak eskaintzen ditu, proiektuen eraldaketa-prozesuetan bidelaguntza eginez. Honako arloetan lan egiten du:

- Teknologia eta garapena: teknologia libreetan oinarritutako tresna digitalak aztertu, diseinatu eta garatzea, behar zehatzetara egokituta.
 - Formazioa eta ahalduntzea: sare-estrategietan, komunikazioan eta teknologia libreen erabileran prestakuntza eskaintzea.
 - Estrategia eta analisia: sareen eta komunikazio-harremanen analisia egin, eta ondorioetatik abiatuta sare-estrategiak diseinatu eta martxan jartzea.
 - Ekonomia eta eraldaketa: Ekonomia Sozial Eraldatzailearen esparruan ekintzailatza eta enpresa-eredu berriak sortzen, saretzen eta hedatzen laguntzea.
- Errenterian du egoitza, bulego propioan zein Torrekuako gunean, eta Olatukoop sareko kidea da.

KOMUNITATEAREN BARRUKO BESTE ERAGILE BATZUK

TEKS.



Batura

Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzailearen mapa da. Bizitza erdigunean jartzen duten eta lurraldeko arazoei irtenbideak eskaintzen dizkieten ekimenen ikusgarritasuna helburu du, merkatuaren eta kapitalaren logiken aurrean alternatiba sendo gisa.

Eusko Moneta

Oarsoaldean tokiko moneta baten sorrera aztertzeko egitasmoa. Tokiko ekonomia bultzatzeko, herritarren, eragile sozialen eta administrazioen arteko elkarlanean garatutako prozesua da, balio sozialak sustatzen dituen eta kohesio sozialean eragiten duena.

EHKOLEktiboa:

Euskal Herrian agroekologia lantzen eta sustatzen duen baserritar eta herritarren kolektiboa. Helburua da baserrietatik eta jendartearekin batera guztiontzako elikadura osasuntsu eta eskuragarria bermatzea.

KOMUNITATEAREN BARRUKO BESTE ERAGILE BATZUK

EKIHERRI

Errenteriako Energia Komunitatea. Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba da, herritar guztiei irekia. Bere helburu nagusiak dira energia-kontsumoa murriztea, energia-burujabetzaren alde lan egitea eta klima-aldaketaren aurka jardutea.

UEU

1973an sortutako unibertsitate-erakundea da. Ikastaroak eskaintzen ditu eta unibertsitate-ekitaldiak antolatzen ditu Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Baionako Paueko eta Pays de l'Adourreko Unibertsitatearekin lankidetzan.

KZgunea

IKTen arloko prestakuntza eskaintzen duen zentro publikoen sarea da, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren mendeko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak gainbegiratutakoa.

2025 EKINTZAK

01.



2025/02/14

+Resiliència

Beraiekin +Resiliència proiektua ezagutu genuen, eta haien **Seidon** gailua ekarri zuten erakusteko. Gailuaren oinarritzko elementuak eta funtzionamendua azaldu zizkiguten, baita bere erabileraren garrantzia ere. Gure arteko ezagutzak partekatzeko aukera izan genuen.

02.



2025/02/22

Koldo Peciña

Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoetako zuzendari nagusia Torrekuara etorri zen gure proiektua ezagutzera.

03.



2025/03/14

Diskurtsoak berritzeko proposamena

Hizkuntzari eta komunitateari lotutako iruditeria eta diskurtsoak berritzeko proposamena. Honako galderen inguruan hausnartu genuen: Zergatik eta zertarako euskara? Zergatik bizi nahi dugu euskaraz, hizkuntza hegemoniko batean errazago uler bagintezke? Euskara altxorra al da? Euskara hizkuntza zaharra da? Euskara hizkuntza klasista eta baztertzailea da?

2025 EKINTZAK

04.



2025/03/17

Laboral Kutxa

Laboral Kutxako ordezkariak Torrekuara etorri ziren gure kooperatibaren lana ezagutzera. Gurekin elkarlanean aritzeko prest agertu ziren, egokitu daitezkeen proiektuetan.

05.



2025/03/22

Ciutat Invisible (ESS Graduondokoa)

Ciutat Invisible Bartzelonako Sants auzoan kokatutako kooperatiba da, Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzea helburu duena. Horretarako, graduondoko bat antolatzen dute. Euskal Herrira egindako bisita baliatuta, Torrekuara etorri ziren proiektua ezagutzera, eta horrekin batera, herrian zehar bisita gidatu bat ere egin genuen.

06.



2025/04/02

Ebaluatoia

Proiektuaren helburua euskarazko adimen artifizial egoki bat sortzeko tresna desberdinak modu kolaboratiboan ebaluatzea izan da. Torrekuara egindako azken saioarekin informazio-bilketari amaiera eman zitzaion.

2025 EKINTZAK

07.

**2025/04/03 ·
2025/07/24**

Fedifesta

Fedibertsoa ulertzeko topaketa ludikoa.
Elkarrekin Fedibertsora salto egiteko
gakoak, tresnak eta komunitateak ezagutu
genituen.

08.

2025/04/09

Wikipedia tailerra

09.

**2025/04/30 ·
2025/06/26 ·
2025/09/25 ·
2025/11/20 ·**

Repair Café

Tresnak, tailerrak eta jakintza elkarbanatu
genituen, hautsitako gailuei bigarren
bizitza bat emanez.

2025 EKINTZAK



10.

2025/07/11

**Eraldaketarako teoriak
zorrozten: pentsamenduaren
bidez praktikak berritzen**

TEKS sareak, Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategiak eta UEUko Humanitate Digitalen Ikerketa Guneak antolatutako saioa. Teoria akademikotik abiatuta, pentsamendu garaikidetik praktika berriak irudikatzeko espazioa izan zen.




11..

**2025/09/16 ·
2025/10/14 ·
2025/11/11 ·
2025/12/09**

Teknologia denontzat

Eguneroko teknologiekin sortzen diren zalantzak argitzeko txokoa.



12.

2025/10/23

Hitzaurrea

Pisizifaktoria Ideien Laborategiak eta Fikzio Fabrikak kaleetan barna ibilbide erreal bat proposatu zuten. Torrekuaatik abiatuta, parte-hartzaileek telefono mugikorra eta aurikularrak erabiliz istorio batean murgildu ziren. Norberaren erabakien arabera, istorioak norabide bat edo bestea hartzen zuen. Aurretik, solasaldi bat egin zen proiektuaren aurkezpena egiteko.

2025 EKINTZAK

13.



2025/11/03

Komunitarioki lantzeko tresna libreak

Komunitate-lana indartzea gustuko dugun arloetako bat da. Horretarako, gure taldeetako batek eraikinari buruzko informazio garrantzitsua bi solairutan jarritako pantailetan jartzen irakatsi zuen.

14.



**2025/11/04.
2025/11/05.**

Ekiherri faktura tailerra

**EKIHERRI argindar faktura
ulertzeko tailerrak.**

15.



2025/11/13

Zer geratzen da sozialetik sare sozialetan? Ekintza kolektiborako estrategia berriak

Azaroaren 13an, Torrekuan, Marta G. Franco eta Leire Lisonekin egungo sare sozialen inguruan hausartu genuen. Hitzaldiaren izenburua "Zer geratzen da sozialetik sare sozialetan?" izan zen, eta korporazio teknologikoek gure gizartean duten botereari buruzko gogoeta egin genuen.

2025 EKINTZAK

16.



2025/11/25 **Oarsopedia: euskara** **gure herrian**

Euskararen Hamabostaldirako
antolatutako ekintza.

17.



2025/11/26 **Gizarte monetaren** **eraketa batzordea**

Mugaz gaindiko tokiko
monetaren “ametsa”
bidean jartzeko lehen
urratsa.

18.



2025/11/27 Bideojokoak euskaraz - Game Erauntsia

Euskararen Hamabostaldirako
antolatutako ekintza.

2025 EKINTZAK

19.

2025/12/02

Hitzaldia: “Transnacionalen eragina emakume kolonbiarrengan. Kontsumo-alternatibak”

Ekiherri energia-komunitateak Luz Romero gonbidatuarekin antolatutako hitzaldia. Latinoamerikako enpresa transnacional handien eraginari buruzko testigantza eskaini zuen, bereziki Kolonbiako emakumeengan duten eraginari buruz. Luz Romero abokatu eta aktibista ekofeminista kolonbiarra da, giza eskubideen defendatzailea.



20.

2025/12/12


#0lgeta01 – PKMak eta gu

PKM tresnak (SiYuan, Obsidian, Logseq, Zim Wiki...) ezagutzeaz gain, haien erabiltzaileak eta esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen. Ondoren, tailer formatuan elkartu ginen, eskuekin eta elkarrekin zerbait eraikitzeko.




BERTARATZE-GRAFIKOA

PARTE-HARTZEAN GENERO-ANIZTASUNA ISLATZEN DA, EMAKUMEEN PRESENTZIA NAGUSITUZ (%60), GIZONEZKOEN %30EKO PARTE-HARTZEAREKIN ETA GENERO-IDENTITATE DESBERDINA DUTEN PERTSONEN %10AREKIN.



Emakumezkoak

Bertaratze-datuei dagokienez, tailerretan parte hartu duten pertsonen %60 emakumeak izan dira, %30 gizonezkoak eta %10 genero-identitate aniztasuna duten pertsonak. Datu horiek erakusten dute proiektuak publiko anitza erakartzeko gaitasuna duela, generoaren arabera parte-hartze orekatua sustatuz.




Gizonezkoak

Emakumeen presentzia nagusiak agerian uzten du eskaintzen diren jarduerak bereziki erantzuten dietela emakumeek teknologia eta ezagutzara sartzeko dituzten beharrei, historikoki egon den arrakala digitala murrizten lagunduz. Aldi berean, gizonezkoen parte-hartze esanguratsuak (%30) proiektuaren izaera irekia eta inklusiboa berresten du.



Genero-identitate deberdinetako personak

Azkenik, genero-identitate desberdina duten pertsonen parte-hartzeak (%10) espazio seguru eta errespetuzko baten sorrera islatzen du, non pertsona guztiek, genero-adierazpena edozein dela ere, parte hartzeko aukera duten. Horrek proiektuaren ikuspegi inklusiboa eta gizarte-kohesioa indartzeko duen konpromisoa berresten du.



PRENSA OHARRAK



<https://www.ehu.eus/eu/web/campus/-/abian-da-ebaluatoia>

<https://herribizia.errenteria.eus/2025/03/28/fedibertsoa-ulertzeko-topaketa-ludikoa-egingo-dute-datorren-ostegunean-torrekuan/>

<https://herribizia.errenteria.eus/2025/07/10/fedibertsoa-ulertzeko-topaketa-ludikoa-eta-bazkaria-antolatu-dute/> <https://oarsoaldea.hitza.eus/2025/05/07/eraldaketa-hizpide-torrekuan/>

<https://herribizia.errenteria.eus/2025/05/23/udaleko-ordezkaritza-batek-eta-hainbat-eragile-sozio-ekonomikok-izadi-enpresa-bisitatu-dute/>

<https://hodeiaezdaexistitzen.eus/agenda/ekitaldia/gailuak-konpontzeko-cafe-repair-tailerra/>

<https://hodeiaezdaexistitzen.eus/agenda/> <https://herribizia.errenteria.eus/2025/06/20/etxean-ditugun-gailu-teknologiko-zaharrak-konpontzen-laguntzeko-tailerra-antolatu-dute-datorren-ostegunerako/>

<https://oarsoaldea.hitza.eus/2025/10/07/bi-tailer-berri-torrekuan/>

<https://www.diariovasco.com/oarsoaldea/errenteria/redes-sociales-consecuencias-descubierto-tarde-2025113204649-nt.html>

https://gaur8.naiz.eus/eu/info_gaur8/20250426/hezkuntzaren-digitalizazioa-bidegurutzean-norabidea-aldatu-baina-nahikoa-al-da-1

A photograph of a historic stone building with a modern staircase and a street lamp. The building is made of light-colored stone with several small, irregularly placed windows. A modern staircase with a metal railing leads up to a doorway on the left. A black street lamp with multiple lanterns stands in the foreground. The sky is overcast.

ESKERRIK ASKO

WWW.TORREKUA.EUS

TEKS.